

2. Gaia

Medikamentuen agindua odontologian



Medikamentuen agindua odontologian

1. Medikamentuen agindua edo preskripzioa odontologian
2. Medikamentuen agindurako alderdi legalak odontologian
3. Errezeta
4. Formulazio magistrala eta erabilpena odontologian
5. Osagai aktibozko agindua

Medikamentuen agindua odontologian

1. Medikamentuen agindua Odontologian

Global Burden Disease Study (2013):

- Munduan 3,9 bilioi pertsonak pairatzen dituzte ahoko gaixotasunak
- Hauen artea, txantxarra da prebalentzie handiena duena (munduko biztanleriaren %35)
- Gaixotasun periodontala prebalentzia aldetik 6.postuan dago (munduko biztanleriaren %11)



Medikamentuak preskribitzea tresna terapeutiko garrantzitsua da

Medikamentuen agindua odontologian

1. Medikamentuen agindua Odontologian

Aginduaren helburuak:

- Pazientearen egoera klinikoa hobetu
- Sintomak tratatu
- Beste gaixotasunak sahiestu
- > Baina arriskuak ere ekarri ditzake:
 - Egoera klinikoaren okerragotzea
 - Diagnostikoa zailagotu
 - Medikamendu antimikrobiarren ez-eraginkortasuna erraztu
 - Elkarrekintza farmakologikoak eta beste eragin kaltegarriak
 - Pazientearentzat eta Osasun-sistemarentzak gastua

Medikamentuen agindua odontologian

1. Medikamentuen agindua Odontologian

Odontologoa eguneratua mandentu behar da ezagutza farmakologikoan !

Praktika Klinikorako Giden eskasia

Adituen gomendioetan oinarritutako protokolo estandarizatuen iraupena...



Medikamentuen **ZENTZUZKO ERABILPENA** odontologian ostopatzen dute

Tratamendu odontologikoen **laurdenak** bakarrik dute oinarri zientifikoa

Oinarri zientifikoaren eskaziak ez du preskripzioak ezegokiak egiten, baina praktika klinikoa ez da analizatua izan, ezta zientifikoki balidatua eta ez dio lehentasuna ematen tratamendu banakakoei

Medikamentuen agindua odontologian

1. Medikamentuen agindua Odontologian

Preskripzio odontologikoaren arazo batzuk:

- Betetze terapeutiko-eza → Erresistentziak antimikrobiarrekiko
- Analgesikoen aginduan eta administrazioan ohitura ez-egokiak

“Beharraren-araberako agindua”

Aldez-aurretiko administrazioa (prebentiboa) → Betetzea eta segurtasuna

AIEEen arteko elkartze ez-egokiak edo ez-beharrezkoak

Medikamentuen agindua odontologian

2. Medikamenduen agindurako alderdi legalak odontologian

10/1986 Legea, martxoak 17koa, odontologoak eta beste aho-osasun mailako profesionaleri buruz: **Odontologoek prekribitzeko gaitasuna**

BOE 68, Martxoak 1986:

Lehen artikulua

1. Odontologoak bere jarduera profesionala burutzeko Lizentziatu unibertsitate titulua behar du, Gobernuak ezarritakoa eta Unibertsitate Kontseiluak proposatua.
2. Odontologoek gaitasun profesionala dute aho eta hortzen gaixotasunekin erlazionatutako prebentzio, diagnostiko eta tratamendurako aktibitate multzoak burutzeko.
3. Odontologoek beraien jarduera profesionalerako behar dituzten medikamentuak, protesiak eta osasun produktuak preskribitu ahal dituzte.

Medikamentuen agindua odontologian

2. Medikamenduen agindurako alderdi legalak odontologian

25/1990 Medikamentuaren legea, abenduak 20: 85. artikuluan errezeta medikoak erregulatzen ditu eta odontologoa medikamentuak errezetatu edo agintzeko profesionalen artean barneratzen ditu.

1594/1994 uztailak 15eko Errege dekretuak, por el que se desarrolla lo previsto en 10/1986 legean ikusitako garatzen du, eta **Odontologo, Protesiko e hortz-higienisten jarduera profesionalak erregulatzen ditu**: aurreko Legean ezarritakoa ziurtatzen du

29/2006 Legeak, uztailak 26koa, medikamentu eta osasun-produktuen erabilben arrazioanalari buruzkoak, 77. artikuluan ezartzen du medikamentuak agintzeko gaitasuna duten osasun profesional bakarrak medikuak, **odontologoak** eta podologoak direla, dagozkien konpetentzia eremuetan.

Medikamentuen agindua odontologian

2. Medikamenduen agindurako alderdi legalak odontologian

Medikamentuen maila legalak:

1. OTC edo EFP

Over The Counter: “mostradorekoak” edo “salmenta askekoak”

Espezialitate Farmazeutiko Publizitarioak

2. Preskripzio medikodun medikamentuak

3. Erabilpen murriztutun medikamentuak

Hauen erabilpena paziente talde zehatzei edo egoera kliniko zehatzei murriztua dago, eraginkortasuna gehitzeko asmoz, eragin desiragaitzak murrizteko, arrazoi epidemiologikoak direla eta (antibiotikoekiko erresistentziak) edo arrazoi ekonomikoengatik.

Medikamentuen agindua odontologian

3. Errezeta

Osasun arloko **dokumentu normalizatua eta derrigorrezkoa**, zeinan bitartez medikuek, odontologoek eta podologoek, legalki ahalmenuak horretarako, eta beraien konpetentzia zehatzetan, pazienteei agintzen dizkien preskripzio medikodun medikamentuak, botiketan edo beste osasun zentroetan emateko.

Helburuak:

Espezialitate farmazeutikoak eskatu

Pazienteari: bidea, dosia, tarte eta iraupena azaldu

Errezeta dokumentu ofiziala da:

Sinatzeak ondorio legalak dauzka

Azken erantzukizina sinatzailearena da (medikua, odontologoa edo podologoa)

Irizpideak jarraitu behar dira

Medikamentuen agindua odontologian

3. Errezeta

Errezeta mediko pribatu berria (2013ko urtarrilak 21etik)

Agintzaileak errezeta pribatua paperean (talonarioak paperean edo pdf) edo informatikoki (XML formatoak) bete ditzakete

DIN A4 (210X297) orriak , marra banatzaile batek errezeta bi aldetan banatzen duelarik:

Farmaziarentzako aldea: medikamendua emateko balio du

Pazientearentzako aldea: Medikamendua era egokian hartzeko informazioarekin

Argi eta garbi idatzi, ez dira onartzen zirriborroak!

Medikamentuen agindua odontologian

3. Errezeta

Errezeta mediko pribatu berria (2013ko urtarrilak 21etik)

Medikamentu bakarra
eta ontzi bakarra

Errezetan beharrezko datuak:

Pazientearen datuak:

- Izena eta deiturak
- Jaiotze urtea
- NAN

Agintzailearen datuak:

- Izena eta deiturak
- Aktibitate profesionalaren helbidea
- Kolegiatu zenbakia

Medikamenduaren datuak:

- Printzipio aktiboaren izena edo formula magistrala.
- Dosifikazio eta era-farmazeutikoa
- Administrazio bidea
- Unitate kopurua ontziko
- Ontzi kopurua
- Posologia: dosia, zenbatero eta iraupena

Iraupena: gehienez 3
hilabete

Medikamentuen agindua odontologian

3. Errezeta

Osakidetzako errezeta publikoa: Aintzinako izendapena

Langileak
Ekarpen ekonomikoa % 40
Salbuezpenak: ekarpen murriztutun
medikamentuak

Pentsiodunak
Ekarpen ekonomikoa % 0

Osakidetzako errezeta publikoa: Gaur egungo izendapena

Ekarpen maila desberdinak datu fiskalekin kalkulaturako TSI kodearen arabera

Medikamentuen agindua odontologian

3. Errezeta

Osakidetzako errezeta publikoa: Gaur egungo izendapena

Kodea	Ekarpena	Norentzat	Hileroko kuota gehiena
TSI 001	Ekarpenik gabe	(1) ikusi	8,14 €/hilabete
TSI 002-01	% 10eko ekarpena	Pentsiodunak <18.000 €/urte	18,32 €/hilabete
TSI 002-02		Pentsiodunak 18.000-100.000 €/urte	Mugarik gabe
TSI 003	% 40eko ekarpena	Aktiboak <18.000 €/urte	Mugarik gabe
TSI 004	% 50eko ekarpena	Aktiboak 18.000-100.000 €/urte	Mugarik gabe
TSI 005	% 60eko ekarpena	Aktiboak >100.000 €/urte	Mugarik gabe
TSI 005-03		Pentsiodunak >100.000 €/urte	61,08 €/hilabete
ATEP	Ekarpenik gabe	Lan istripuko eta gaixotasun profesionaleko errezetak	-
NOFIN	% 100eko ekarpena	Ez finantziatutako medikamendu eta osasun produktuen errezetak	Mugarik gabe

Medikamentuen agindua odontologian

3. Errezeta

Osakidetzako errezeta publikoa: Gaur egungo izendapena

Kodea	Ekarpena	Norentzat	Hileroko kuota gehiena
TSI 001	Ekarpenik gabe	Ikusi (1)	8,14 €/hilabete

(1) Ekarpenik gabe:

Pentsio ez kontributiboen jasotzaileak

Gizarteratzeko errenten jasotzaileak

Langabetuak langabezia laguntzarik gabe dauden bitartean


Sindrome toxikoa pairatzen dutenek eta elbarritasunen bat dutenek legediak agertzen duen kasuetan.

Lan instripuen ondoriozko tratamenduan daudenak eta gaixotasun profesionalak (ATEP)

Medikamentuen agindua odontologian

3. Errezeta

Errezeta elektronikoa



Tratamendu orria

Hila beterako emandako medikazioa

Medikamentuen agindua odontologian

3. Errezeta

Estupefazianteen errezeta

Ohiko errezetarekin batera emandako errezeta berezia da

Beharrezkoa da pazientearen NAN

Botikan beharrezkoa da hartzailearen NAN

Agindu bakarra edo errepikatua den adierazi behar da

Ontzi kopurua adierazi, bai zenbakiz eta baita hizkiz ere

Medikamentuen agindua odontologian

4. Formulazio magistrala eta erabilpena Odontologian

Farmazilariak prestatzen duen medikamendua paziente batentzat agindu mediko bat betetzeko

Formula magistralak preskribitzeko gomendioak:

Printzipio aktiboen elkarketak, dosiak eta indikazioak legalki onartuak izan behar dira

Unitateekin izendapen osoa erabili eta laburdurak saihestu (miligramo, mikrogramo...)

Nazioarteko izendapen komuna erabili (DCI)



Medikamentuen agindua odontologian

4. Formulazio magistrala eta erabilpena Odontologian

Noiz agindu formula magistrala?:

Dosia indibidualizatzeko

Elkarketa zehatzak eta komertzializatuta ez daudenak agintzeko

Eragin desiragaitz edo bateraezintasunak saihesteko (exzipiente batetiko alergia)

Erosotasuna (Xarabe bat umeentzat)

Adibidea odontologian:

Nistatina: 100.000 UI

Triamcinolona acetónido: 0,2%

Lidocaina: 2%

Orabase: csp



Medikamentuen agindua odontologian

5. Osagai aktibozko agindua

“DOE” (“Denominación Oficial Española”) sistemaren preskripzioa

BOE nº 200, 2011eko abuztuak 20a:

económicos de los que dispone el sistema sanitario. Se establece para ello que la prescripción de los medicamentos y de los productos sanitarios se realizará por su principio activo o su denominación genérica respectivamente, salvo cuando existan causas de necesidad terapéutica que justifiquen la prescripción por marca, o cuando se trate de medicamentos que pertenezcan a agrupaciones integradas exclusivamente por un medicamento y sus licencias al mismo precio. No obstante, cuando, por excepción, la prescripción se hubiera realizado por la denominación comercial del medicamento o producto sanitario, se dispensará el producto prescrito si es el de menor precio de la agrupación correspondiente; de lo contrario, se dispensará el de menor precio de la misma. Esta medida conlleva la dispensación del medicamento o producto sanitario de precio menor lo que supone un ahorro importante para el Sistema Nacional de Salud,

Medikamentuen agindua odontologian

5. Osagai aktibozko agindua

“DOE” (“Denominación Oficial Española”) sistemaren preskripzioa
(farmakoak osagai aktiboz eta osasun produktuak izen generikoz)

Odontologoak definitu behar ditu:

Osagai aktiboaren izena

Dosifikazioa

Era-farmazeutikoa eta ontziaren tamaina

Ej.: Amoxicilina, 500 mg, 28 kapsula

Salbuezpenerak: Izen komertziala kasu hauetan erabili daiteke:

Medikamendua ezin denean ordezkatu

Beharizan terapeutiko justifikatua dagoenean (alergia...)

Ez dagoenean generikorik

Hornidura gabetzetan (larrialdi justifikatua)

Marka komertziala merkeagoa denean erreferentziazko prezioa baino